| 1 Pertsonal gastuak | 54.560,60 |
| 2 Gast. ondas. arrunt zerbitz. | 64.190,52 |
| 3 Finantza gastuak | 130,00 |
| 4 Transf. arruntak | |

B) KAPITAL ERAGIKETAK

| | |
|---|---|
| 6 Inbertsio errealak | |
| 7 Kapital Transferentziak | |
| 8 Finantza Aktiboak | |
| 9 Finantza Pasiboak | |
| GUZTIRA | 118.881,12 |

5. PRESUPUESTO DE INMOBILIARIA MUNICIPAL EIBARRESA, S.A.

INGRESOS

A) OPERACIONES CORRIENTES

| Capít Denominación | Euros |
|---|---|
| 1 Impuestos directos | |
| 2 Impuestos indirectos | |
| 3 Tasas y otros ingresos | 269.122,50 |
| 4 Transfer. corrientes | |
| 5 Ingresos Patrimoniales | 49.272,82 |

B) OPERACIONES DE CAPITAL

| | |
|---|---|
| 6 Enajenación inver. reales | |
| 7 Transfer. Capital | |
| 8 Activos Financieros | -199.514,20 |
| 9 Pasivos Financieros | |
| TOTAL | 118.881,12 |

GASTOS

A) OPERACIONES CORRIENTES

| Capít Denominación | Euros |
|---|---|
| 1 Gastos de Personal | 54.560,60 |
| 2 Gtos. en bienes corr. servic. | 64.190,52 |
| 3 Gastos financieros | 130,00 |
| 4 Transfer. corrientes | |

B) OPERACIONES DE CAPITAL

| | |
|---|---|
| 6 Inversiones reales | |
| 7 Transfer. Capital | |
| 8 Activos Financieros | |
| 9 Pasivos Financieros | |
| TOTAL | 118.881,12 |

PRESUPUESTO CONSOLIDADO

AURREKONTU BATERATUA

SARRERAK

A) OHIKO ERAGIKETAK

| Kap | Izendapena | Euroak |
|---|---|---|
| 1 | Zuzeneko zergak | 8.207.031,16 |
| 2 | Zeharkako zergak | 262.000,00 |
| 3 | Tasak beste sarrera batk | 4.567.534,05 |
| 4 | Transf. arruntak | 21.136.116,31 |
| 5 | Ondarezko sarrerak | 261.957,15 |

B) KAPITAL ERAGIKETAK

| | | |
|---|---|---|
| 6 | Inbertsio errealen besterengan | 0,00 |
| 7 | Kapital Transferentziak | 234.500,00 |
| 8 | Finantza Aktiboak | -145.896,20 |
| 9 | Finantza Pasiboak | 3.744.312,61 |
| GUZTIRA | | 38.267.555,08 |

INGRESOS

A) OPERACIONES CORRIENTES

| Capít | Denominación | Euros |
|---|---|---|
| 1 | Impuestos directos | 8.207.031,16 |
| 2 | Impuestos indirectos | 262.000,00 |
| 3 | Tasas y otros ingresos | 4.567.534,05 |
| 4 | Transfer. corrientes | 21.136.116,31 |
| 5 | Ingresos Patrimoniales | 261.957,15 |

B) OPERACIONES DE CAPITAL

| | | |
|---|---|---|
| 6 | Enajenación inver. reales | 0,00 |
| 7 | Transfer. Capital | 234.500,00 |
| 8 | Activos Financieros | -145.896,20 |
| 9 | Pasivos Financieros | 3.744.312,61 |
| TOTAL | | 38.267.555,08 |

GASTUAK

A) OHIKO ERAGIKETAK

| Kap | Izendapena | Euroak |
|---|---|---|
| 1 | Pertsonal gastuak | 14.669.521,84 |
| 2 | Gast.. ond.. arrunt zerbtz. | 11.448.455,06 |
| 3 | Finantza gastuak | 162.509,27 |
| 4 | Transf. arruntak | 3.796.149,34 |
| 5 | Kreditu globala eta ustek. | 1.360.000,00 |

B) KAPITAL ERAGIKETAK

| | | |
|---|---|---|
| 6 | Inbertsio errealak | 5.651.230,01 |
| 7 | Kapital Transferentziak | 150.000,00 |
| 8 | Finantza Aktiboak | 56.018,00 |
| 9 | Finantza Pasiboak | 973.671,56 |
| GUZTIRA | | 38.267.555,08 |

GASTOS

A) OPERACIONES CORRIENTES

| Capít | Denominación | Euros |
|---|---|---|
| 1 | Gastos de Personal | 14.669.521,84 |
| 1 | Gast.b.corr.y serv.I | 11.448.455,06 |
| 3 | Gastos financieros | 162.509,27 |
| 4 | Transfer. corrientes | 3.796.149,34 |
| 5 | Crédito global e imprev. | 1.360.000,00 |

B) OPERACIONES DE CAPITAL

| | | |
|---|---|---|
| 6 | Inversiones reales | 5.651.230,01 |
| 7 | Transfer. Capital | 150.000,00 |
| 8 | Activos Financieros | 56.018,00 |
| 9 | Pasivos Financieros | 973.671,56 |
| TOTAL | | 38.267.555,08 |

Langileria lan batzordearen irizpen hau irakurri du:

Da lectura así mismo al siguiente dictamen de la Comisión de Trabajo de Personal:

2017ko Plantilla eta Lanpostuen zerrenda.

Plantilla y Relación de puestos de trabajo año 2017:

"Pertsonal Lan Batzordeko zinegotziek aztertu dute Antolamendu eta Langileria zuzendariak 2017. urterako Plantillari eta Lanpostuen Zerrendari buruz egin duen proposamena; horren inguruan egin den bozketaren emaitza hau ikusita:

“Los/as Concejales/as miembros de la Comisión de Trabajo de Personal, a la vista de la propuesta presentada por la Directora de Organización y Personal referente a la Plantilla y Relación de puestos de trabajo para el año 2017, y visto el resultado de la votación efectuada al respecto:

- Aldeko botoak, jaun/andre hauenak: Miguel de Los Toyos, Ana Tellería, Arcadio Benítez, Marisa Larrauri.
- Abstentzioak, jaun/andre hauenak: Ana Fran Astigarraga, Gorka Errasti, Jaime Lopez, Mercedes Garate, Mª Jesus Aguirre

- Votos a favor: Sres/as. Miguel de Los Toyos, Ana Terrería, Arcadio Benítez, Marisa Larrauri.
- Abstenciones: Sres/as. Ana Fran Astigarraga, Gorka Errasti, Jaime Lopez, Mercedes Garate, Mª Jesus Aguirre

Udal Osoko bilkurari, erabaki hau hartzeko proposamena egin diote:

Acordaron proponer al Pleno Municipal, la adopción del siguiente acuerdo:

- 2017. urteari dagokion Plantilla eta Lanpostuen Zerrenda onartzea aldaketa honekin:

- Aprobar la Plantilla y Relación de Puestos de trabajo correspondiente al año 2017, con la siguiente modificación:

Haurtzaro eta Nerabezaro koordinatzailearen (177. zenbakia) lanaldia % 50etik % 100era izatera pasatuko da."

El puesto (nº177) de Coordinador de Infancia y Juventud cambia la jornada del 50 % al 100 %."

Alkateak galdetu dio Bildu Taldeari boto partikular bakoitzaren inguruko eztabaida egingo duen.

Errasti jaunak erantzun dio bere Taldeak eutsi egingo diela 2, 7, 16, 18, 20 eta 23 zenbakietako zuzenketa partzialei; planteamendu orokor bat egingo dutela eta zuzenketa bakoitzaren inguruko pintzelkada txiki bat.

Pregunta el señor Alcalde al Grupo Bildu si va a hacer un debate por cada voto particular.

Indica el señor Errasti que su Grupo mantendrá las enmiendas parciales numeradas como 2, 7, 16, 18, 20 y 23, y que harán un planteamiento general y una pequeña pincelada para cada una de ellas.

Hitzegiteko txandan, aurrenik, Errasti jaunak hartu du hitza; eta esaten du, gobernu-taldeak aurkeztu duen aurrekontu-zirriborroari buruzko balorazio txiki bat egin nahi dutela, eta, horren ondoren, zuzenketak izango dituela hizpide.

Abierto turno de intervenciones, interviene en primer lugar el señor Errasti quien comienza diciendo que desean hacer una pequeña valoración del borrador de presupuesto presentado por el Equipo de Gobierno, y que, después, pasará a comentar las enmiendas.

Adierazten du oso nobedade gutxiko zirriborroa dela; ekimen ausartik gabekoa, eta komentzituta daudela gobernu-taldeak horrela jokatu duela gainerako taldeek zirriborroa aberas zezaten. Ondoren, hauxe azaldu du:

"Udalean sartu ginenetik, urtero-urtero eskatu dugu zinegotzion dietak murriztea; salagarria delako 300 euro jasotzea bilera batera joateagatik; eta, aurten ere, 60

Afirma que consideran que es un borrador con muy pocas novedades, sin iniciativas valientes; y que están convencidos de que lo hicieron así para que el resto de los grupos lo enriquecieran. Seguidamente añade la siguiente intervención:

"Desde que entramos en el Ayuntamiento todos los años solicitamos recortar las dietas de los concejales, pues recibir 300 euros por asistir a las comisiones es de-

eurora murriztea planteatu dugu. Horrela, 120.000 euro aurreratuko genituzke eibartarren beharretara bideratzeko.

Bestalde, ez da ikusten langileentzako soldata-igoerarik, baina Madrileko gobernuak % 1 igotzea ezarri du eta horrek 120.000 euro inguru eskatuko ditu; hain zuzen ere, dietetatik murriztea eskatu duguna.

Gogoratu behar da Madrileko gobernuak Gipuzkoako aurrekontuen kontrako errekurtsoa sartu duela alkateek eta zinegotziek duten soldatengatik; eta ikusiko dugu zertan geratzen den errekurtsoa, baina, azkenean, langileen soldatarekin egin den bezala, Madrilek esandakoari egingo zaio men.

2017ko urte honetan ia 600.000 euro ipiniko dira eskailera mekanikoak eta igogailuak mantentzeko; kopuru ikaragarria: laurehun familia baino gehiagoren gizarte larrialdietako laguntzetarako izendatutakoa baino bi aldiz gehiagokoa.

Bai, dirua jarri behar da benetako irisgarritasuna izateko, eta onartu ala ez onartu, PSEren politikak, Eibar osoa eskailera mekanikoekin betetzekoak, funtzionatu egin zuen bere sasoian; areago oraindik: eskaileren inaugurazio-ekitaldietan dantzan ere egiten zen, Kezkako dantzariak

nunciable y este año también planteamos recortarlas a 60 euros, con lo que se ahorrarían 120.000 euros para canalizarlos a las necesidades de los eibarreses.

Por otra parte, no se ve un aumento para los trabajadores, pero el gobierno de Madrid ha establecido un aumento del 1% y esto supondrá precisamente unos 120.000 euros, la cantidad que se plantea rebajar las dietas.

Recordar que el gobierno de Madrid ha recurrido los presupuestos de Gipuzkoa, por los salarios de los alcaldes y concejales, y ya se verá en que queda el recurso, pero también, al igual que ocurre con los salarios de los trabajadores, se estará a lo que diga Madrid.

Este 2017 también se destinarán casi 600.000 euros al mantenimiento de escaleras mecánicas y de los ascensores, cantidad totalmente escalofriante, pues dobla lo presupuestado para las ayudas de emergencia social de más de cuatrocientas familias.

Sí que hay que destinar dinero hacia una verdadera accesibilidad, y se quiera o no admitirlo, la política del PSE de cubrir todo Eibar con escaleras mecánicas en su día funcionó, e incluso se bailaba en las inauguraciones de las escaleras con dantzaris de Kezka, pero hoy en día ha

han zirela, baina, gaur egun, eskaileren zer hori porrot bilakatu da.

Alkatetzaren Memorian behin eta berriz azaltzen da aurten ez direla iritsiko obrak egiteko Jaurlaritzaren 2.500.000 milioi haiek, baina dena ez da obrak egitea, eta EH Bildu askoz arduratuago dago, Jaurlaritzak ezabatu egin dituelako gizarte-zerbitzuetan profesionalak kontratatzeko laguntzak, eta Eibarren lanposturen bat kolokan geratzen da murrizketa horrekin.

Garrantzizkoa da baita GLLetarako nahiko diru ez etortzea, aurten baldintzak aldatu direlako; pertsona gehiagok eskatuko dituzte laguntzak, prozesuaren denbora ere luzatu egingo da, baina Eusko Jaurlaritzak 5.000 euro gehiago bakarrik jarri du, besterik ez, eta Udalak, berriro ere, dirua jarri behar izango du.

Plan Estrategikoa garatzeko partidarik ere ez dago; eta, sinistuta gaude, PSEren estrategia Plan Estrategikoa tiradera edo zarraka baten gordetzea dela. Bildu, ostera, bat dator Plan horrek jasotzen dituen gauza askorekin, eta uste du badela garaia Hiri Antolaketako Plan Orokorra eguneratzeko.

Eraikitzeari utzi; mendiari lur gehiagorik ez jan; dagoena zaindu eta onera ekarri; dauden etxebizitza eta tailer hutsek hartzen duten lekua birgaitu: horixe da EH

resultado ser un fracaso.

En la Memoria de la Alcaldía se insiste en que este año no vendrán 2.500.000 euros del Gobierno Vasco para obras, pero no todo son obras, y EH Bildu está mucho más preocupado porque el Gobierno Vasco ha anulado las ayudas para la contratación de profesionales en servicios sociales, y con este recorte en Eibar queda en el aire algún puesto de trabajo.

También es importante que no venga dinero suficiente para las AES, pues este año se han modificado las condiciones, y solicitarán ayuda más personas y se prolongarán los tiempos del proceso, pero el Gobierno Vasco tan solo refleja un aumento de 5.000 euros, y el Ayuntamiento de nuevo tendrá que poner dinero.

No hay tampoco partida para el desarrollo del Plan estratégico, y estamos convencidos de que la estrategia del PSE con el Plan Estratégico es guardarlo en un cajón, y Bildu siente sin embargo mucha sintonía con mucho de lo recogido en ese Plan y cree que es necesario de una vez, actualizar el Plan General de Ordenación Urbana.

Dejar de construir, dejar de comer terreno al monte y cuidar y regenerar lo que se tiene, y rehabilitar los espacios de que se dispone de viviendas y talleres en

Bildurentzat hirigintza-politikaren etorkizuna.
Hala ere, dena ez da txarra; zirriborroak badauzka poztekoak diren pare bat kontu.

Azkenean, Imesa 2017. urte honetan likidatuko da; ikusiko dugu nola geratuko den *swap*ei buruzko epai irmoa, baina albiste ona da Imesa deritzon zulo amaiezin hori estaltzea.
Bildu azken urte hauetan aurrekontuan sartzen joan den proposamen batzuk ere jaso dira, eta bere Taldea harro dago proposamen horietaz.
Esate baterako: laguntzak ematea GBE jasotzen duten familietako adingabekoak eskolaz kanpoko jardueretara joan daitezen; laguntzak ematea Eibarko gazteak emantzipa daitezen; “Coliseoaren laguna" txartela; Euskararen Plan Estrategikoarekin hartutako konpromisoa.
Proiektu hauetako asko bertan geratzeko datoz, eta horixe da zuzenketak egitean nahi dena.

Foru Funtsari dagokiola —Udalaren diru-iturririk handiena—, 2016ko likidazioaren ondoren Eibarrek 360.000 euro itzuli behar ditu, eta egunetik egunera argiago dago ezinbestekoa dela erreforma fiskala egitea, baina ez herritar xumeak estutzeko, enpresek ordaindu behar dutena

desuso, tiene que ser para EH Bildu el futuro de la política urbanística.
Pero no todo es malo; y el borrador tiene un par de cuestiones por las que se alegran.
Por fin, se liquida Imesa este 2017, y ya se verá como queda la sentencia firme de los *swap*s, pero es una buena noticia tapar este agujero sin fondo llamado Imesa.
También hay varias propuestas planteadas por Bildu en los últimos años que se han ido introduciendo en los presupuestos, y de las que su Grupo está orgulloso.
Así, ayudas para actividades extraescolares a menores de familias perceptoras de RGI, ayudas para la emancipación de jóvenes eibarreses, la tarjeta de fidelización “Coliseoren Lagunak”, o el compromiso adquirido con el Plan Estratégico del Euskera.
Muchos de estos proyectos son proyectos que vienen para quedarse, y eso es lo que se intenta con la presentación de las enmiendas.
En cuanto al Fondo Foral -la mayor fuente de ingreso del Ayuntamiento-, tras la liquidación del 2016 Eibar tiene que devolver 360.000 euros, y cada vez está más claro que una reforma fiscal integral es urgente, pero no para seguir apretando a los ciudadanos de a pie; sino para

ordaintzeko baizik; eta zezenari adarretik eutsi, sozietateen zergari, alegia.

Alkateak bere Memorian dio "zuzena da aitortzea beste ekitaldi batzuetan Foru Funtsa hobeto portatu dela eta udal kutxan uste ez ziren diru-ekarpenak sartu izan direla", baina amaierako oharra egitea falta zaio: hori guztia EH Bildu gobernatzen zegoenean izan zela.

Garapen ekonomikoari dagokionez, ematen du martxan ipini dela Plan Zuzentzailearen asmoa, Bilduri esker, eta hortaz pozten gara baina gai honekin ez dugu erlaxatu behar.

Herrian eta eskualdean langabeziak behera egin badu ere, kontuan hartu behar dugu zernolako enplegu mota sortzen ari den, gehienak, enplegu prekarioak. Diru-sarrerak bermatzeko errenten erditik gorakoak miseriazko pentsioak eta soldatak osatzeko dira; pertsona batzuk DSBEra jo behar izaten dute beren diru-sarrerak nolabait duintzeko; edo, aste honetan bertan Eusko Jaurlaritzatik oharteman dutena: berrogei urtetik beherako hiru euskal emakumetik batek pobrezia-arriskua du lanean aritu arren.

Aurkeztutako zuzenketei buruz, esaten du lehen aipatutako sei zuzenketa horiei eutsi dietela, estrategikoenak direlako.

que las empresas paguen lo que tienen que pagar, y agarrar al toro por los cuernos, que es el impuesto de sociedades.

Como dice el Alcalde en su Memoria, “es de justicia reconocer que en otros ejercicios, el Fondo Foral se ha comportado mejor y ha habido aportaciones no previstas en las arcas municipales”, aunque le falta la coletilla de que fue durante el gobierno de EH Bildu.

Sobre el desarrollo económico, parece que se ha puesto en marcha el planteamiento del Plan Director, gracias a Bildu, de lo que nos alegramos, pero no hay que relajarse en el tema.

Aunque haya bajado el paro en la localidad y en la comarca, hay que percatarse qué tipo de empleo se está creando, ya que, en su mayoría, se trata de empleo precario. La mitad de las rentas de garantía de ingresos son para complementar pensiones y sueldos miserables y hay personas que tienen que recurrir a la RGI para dignificar un poco su ingresos, o como se ha alertado esta semana desde el propio Gobierno Vasco, una de cada tres mujeres vascas menores de cuarenta años con empleo, está en riesgo de pobreza.

En cuanto a las enmiendas presentadas, decir que se conservan las seis señaladas anteriormente por ser las más estra-

tégicas.

Partidarik ez duten zuzenketak ere aurkeztu dituzte, esate baterako, Kulturaren eta Jaien Mahaia sortzea, gobernu-taldeak mahai hori martxan ipintzeko zailtasunak ipini dituelako. Hala ere, gure iritziz, beharrezko baliabide bat da, urtean zehar, egiten diren gainerako jarduerez eta erakusketez gain, 54 erakundek bide publikoa okupatzeko edo hartzeko eskaera egin badute, ez al da benetan beharrezkoa ikusten elkarte horiek guztiak koordinatzeko foro bat sortzea?

Estaziño kaleko Ariel etxea erosteko gestioak egiten hasi eta hari emango zaion udal-erabilera zehaztu, jabeak, Foru Aldundiak, etxe hura Elizaren eskuetan utzi arren elizak ez duelako erabiltzen.

Mugikortasun Planaren ekintzak ere martxan ipini nahi dira; aurkezten diren proiektuak aztertzeko eta garatzeko sail bat sortzeko aukerarik dagoen ikusi. Bittor Sarasketako eraikinaren parte-hartze prozesuaren emaitzak ere martxan jarri nahi dira; eta Goiner kooperatibarekin elkarlana eta elkartea eratu.

Baina, zoritxarrez, gobernu-taldea ez zen akordio batera heldu EH Bildurekin. Ho-

También presentan enmiendas sin partida, como la creación de la Mesa de Cultura y fiestas, pues existen dificultades para la puesta en marcha de esta mesa por parte del Equipo de Gobierno, pero consideramos que se trata de un recurso necesario, ya que si 54 entidades han solicitado ocupación de vía pública, además de las actividades y exposiciones que han realizado ¿de verdad no se ve necesario el crear un foro de coordinación entre todas estas asociaciones?

También se desea iniciar las gestiones para la adquisición de la Casa de Arbitrios en la calle Estaziño y definir su uso municipal, pues su propietaria, la Diputación, la tiene cedida en uso a la Iglesia, pero ésta la tiene en desuso.

Se desea también poner en marcha las acciones del Plan de Movilidad, y estudiar la creación de un departamento para el estudio y desarrollo de los proyectos que se presentan, así como también poner en marcha las conclusiones del proceso participativo en cuanto al edificio de Bittor Sarasketa, y establecer con la cooperativa Goiner una colaboración y una asociación.

Pero por desgracia, el Equipo de Gobierno no llegó a un acuerdo con EH Bil-

rren ondorioz, aurrekontuen kontrako botoa emango dugu.
Guk estrategikotzat geneuzkan zuzenketa batzuk murriztu eta txikitu egin dira negoziazioan; dieten inguruko hausnarketari ere beharrezkoa generitzon.

EH Bilduren erabakiak asanbleetan hartzen dira; eta asanblean erabaki zen hau ez zela gure aurrekontua.
Amaitzeko, esan, negoziazioa erabat adiskidetsua izan bada ere, atentzioa eman digu PSEk gainerako taldeekin izan duen jarrerak, ez delako abegikorra izan.

Uste dugu urte asko daramala beste talde batzuen aurrekontuei zuzenketak egin behar izateke, baliteke horixe izatea arrazoia; baina EH Bilduk oso lan zehatza egin du, eta gainerako taldeekiko begirune gutxikoa iruditzen zaigu, negoziazioei ekin eta joko-zelaia zein den esanda, talde guztiek aurkeztu dituzten zuzenketetarako bakarrik 1.300.000 euro daudela esatea, pusketa bat baino ez horrelako aurrekontu handi batean.
Kexatu egiten zarete, gainerako udal Taldeek Errege Magoei kartak egiten dizkietela-eta; eta hurrengo baterako, joko-zelaia hasieratik bertatik finkatu behar da; eta, hartara, EH Bilduk bere zuzenketak hobeto neurtu eta aurrekontuari zuzendu, por lo que vamos a votar en contra de los presupuestos.
Enmiendas que considerábamos estratégicas se han visto reducidas y desdibujadas en la negociación, y también considerábamos necesaria una reflexión sobre las dietas.
Además, las decisiones de EH Bildu son asamblearias y se decidió en asamblea que este no es nuestro presupuesto.
Decir para finalizar, que si bien la negociación ha sido totalmente cordial, nos ha llamado la atención la actitud poco caballerosa del PSE con el resto de los grupos.
Suponemos que la razón será tantos años sin tener que enmendar presupuestos de otros grupos, pero para EH Bildu ha sido un trabajo minucioso; y nos parece una falta de consideración con el resto que una vez comenzadas las negociaciones, se hable de un campo de juego en el que tan sólo se dispone de 1.300.000 euros para las enmiendas de todos los grupos, un simple pellizco en un presupuesto tan grande.
Os quejáis si después el resto de los grupos hacen cartas a los Reyes Magos, y la siguiente vez, desde el principio hay que fijar el campo de juego, y así EH Bildu calibrará mejor sus enmiendas y verá si enmienda o no el presupuesto.”

ketak egiten dizkion ala ez ikusiko du."

Mendicute jaunak hartu du hitza ondoren, eta hauek dira haren hitzak:

“Uste dugu, aurrekontuez hitz egin aurretik, aurrekontuen testuingurua zehaztu behar dela; udalerriak bizi duen unea aztertu behar da, eta horren araberako aurrekontuak egin.

Hainbatetan esan dugu hau, baina berriz diogu, kezkatuta baikaude: 1.906 herritar daude langabezian eta horrek % 15,4ko tasa egiten du, urtarrilean adibidez. Eta datu hori inguruko herrienekin alderatuz gero, kopuru gordina da. EAEn %11,1eko langabezia dago, eta ehuneko hori gurean aplikatuz gero, 1.374 lagun egongo lirateke langabezian, eta ez 1.906. Hau da: 532 pertsona gehiago lanean eta % 28 langabezia gutxiago.

Datu hori abiapuntu hartuta, Eibarrek 2016an izandako bilakaera aztertuko dugu, eta kezkatzekoa da. Inguruko langabezia-tasarik altuena izateaz gain, langabezia mantsoago jaisten da gurean besteetan baino. EAEko langabezia-tasa % 10,2 ari da jaisten, eskualdekoa % 10,7, eta gurea, Eibarkoa, apalagoa da. Eta horrek kezkatu egiten gaitu.

Interviene a continuación el señor Mendicute, quien efectúa la siguiente intervención:

“Pensamos que para hablar de los presupuestos es importante primero fijar el escenario en que se dan; pues hay que ver la situación del municipio, y en función de esa situación, tendrán que ser los presupuestos.

Aunque ya lo hemos mencionado varias veces, nos preocupa que 1.906 personas estén en paro y que esto suponga una tasa del 15,4%, según datos del mes de enero, y en comparación con el entorno, el dato es crudo, porque en Euskadi es aproximadamente del 11,1%, y si extrapoláramos este dato a Eibar, en vez de 1.906 personas tendríamos 1.374 personas en paro, 532 personas más trabajando y un 28% menos de paro.

Partiendo de este dato, hay que hacer un repaso de lo que ha sido el 2016 en Eibar, y preocupa un dato escalofriante y es que no solo tenemos una tasa de paro mayor que la del entorno; sino que la mejora que hay en el decrecimiento del desempleo es inferior a la de nuestro entorno. Y así, el paro tiene un decrecimiento del 10,2% en Euskadi, del 10,7% en la Comarca, y sin embargo el de Eibar

está por debajo. Lo cual les preocupa.

Eta nola banatzen da langabezia Eibarren? Bada, industriak langabezia gehiago du Eibarren EAEn baino. Aurretik lanik eduki ez duten langabeen kopurua ere altuagoa da; beraz, haientzako enplegua sustatzeko beharra dago. Eta horregatik hitzarmen bat zegoen 2016n, *Cruz Irasuegui* bekak banatzeko. Baina ez ziren bete eta berriz eskatu dira. Aitzitik, Eibarrek langabezia gutxiago du zerbitzuetan eta obretan, eta hori ez dator bat Euskadiren ekonomia garatzeko ereduarekin; Andaluziakoren antzekoagoa da.

Junto a esto les preocupa cómo se reparte el desempleo por sectores, pues en Eibar hay más paro en industria que en Euskadi, y hay más paro de personas sin empleo anterior; y ello obliga a impulsar el trabajo de las personas que no han tenido trabajo antes, y por eso había en el 2016 un acuerdo para las becas *Cruz Irasuegui* que no se ha ejecutado y que han vuelto a solicitar, y sin embargo, donde hay menos paro que en Euskadi es en servicios y en construcción, lo que lleva a decir que el modelo de desarrollo que se está impulsando es un modelo que poco tiene que ver con el modelo de desarrollo de Euskadi, y puede asemejarse más a un modelo de desarrollo andaluz.

Eibarren, 16-64 urte bitartekoen enplegutasa % 49 da; EAEn, aldiz, % 65,5. Horrez gain, Eibarko biztanleriaren %24,5ek 64 urte baino gehiago dute.

En Eibar, el porcentaje de personas trabajadoras entre 16 y 64 años es del 49%, mientras que en Euskadi es del 65,5%, y el porcentaje de personas mayores de 64 años en Eibar es del 24,5%.

Kontuak argitze aldera, jo dezagun Udalbatzako 20 zinegotziek ordezkatzen dutela Eibarko biztanleria osoa. 20tik, 5ek 64 urte baino gehiago izango luke, eta hiruk 15 urte baino gutxiago izango lukete eta hamabik 16-64 urte bitartean edukiko lukete. Azken 12 horietatik, 6 lanean leudeke eta beste 6ak ez. Eta lanean leude-

Para reflejar estos datos, proponemos que se cojan los veinte concejales del pleno, porque se vería que cinco tendrían más de 64 años, que tres serían menores de 15 años, y que 12 estarían entre 16 y 64 años, y de estos 12, 6 estarían trabajando y los otros 6 no, y de la mitad de los que estarían trabajando, tres o cuatro

kenetatik, erdiak, hiru edo lau, Eibartik kanpora leudeke lanean. Hau da, 20 zinegotzietatik bi baino ez leudeke Eibarren lanean.

Horixe da gure herriaren egoera. Eta Udalean urte asko badaramatzazu lanean, edo gobernu-taldeko kide gehienek Udalean lan egiten dutenean, errealitatetik aldentzeko arriskua dago.

Azaldu dudan horrek guztiak esan nahi du lanean 6 lagun daudela eta lanik egiten ez duten 14ri eusten dietela: sistema iraunkorra ote den aztertu beharra dago hemen. Egia da, enplegurik edo soldata duinik ez dutenei lagundu behar zaie, baina ezin dugu ahaztu 6ren artean eusten diotela beste 14k eusten ez diotenari. Eta hausnartu egin beharko da Eibarrek duen egoeraz, mendetasun-tasa % 62,2koa baita.

Beste datu batzuekin ere kezkatuta daude, jaiotza-tasa negatiboarekin esaterako, milatik hirukoa baita. Tasa baxu hori migrazioak berdintzen du, positiboa baita.

Guztiok batera aztertu behar dugu egoera, eta plan estrategikoa dugu horretarako, baina onartu gabe dago oraindik. Bertan dago jasota foro estrategikoak sortu behar direla. Baina halakorik egingo ez bada, akaso pentsatzen hasi beharko

trabajarían fuera de Eibar; esto es, que de los veinte concejales tan sólo dos estarían trabajando en Eibar.

Esa es la realidad de la ciudad, y de la que nos podemos alejar cuando se lleva muchos años trabajando en el Ayuntamiento o cuando la mayor parte de los miembros del equipo de gobierno trabajan en el Ayuntamiento.

Esto implica que seis personas están sosteniendo a 14 personas que no trabajan, y que hay que plantearse la sostenibilidad del sistema, porque está bien que se hable de ayudar a las personas que no tiene trabajo o un salario digno, pero habrá que hablar de que solo hay seis personas sosteniendo un sistema en el que las otras catorce no lo están sosteniendo, y habrá que hacer una reflexión de la situación de Eibar, con una tasa de dependencia del 62,2 %.

Les preocupa también otros datos como la tasa de natalidad que es negativa, del 3 sobre mil que solo se ve compensado con el saldo migratorio, que es positivo.

Creemos que hay que hacer un análisis compartido y para ello tenemos un Plan Estratégico, que todavía está sin aprobar, en el que se establece la necesidad de crear unos foros estratégicos. Y que si no se van a hacer, habría que plantear que

genuke egin beharko dugula herriaren egoerari buruzko urteko eztabaida.

igual hay que pensar en hacer en Eibar un debate anual sobre el estado de la ciudad.

Kontua da Eibarren garapen-eredua EA-Eko okerrenetakoa dela, eta Eibarrek duen historiagatik, abangoardia izatea merezi du.

La realidad es que Eibar en el modelo de desarrollo está a la cola de Euskadi, y Eibar por su historia, se merece intentar estar en la vanguardia.

Bigarren Mundu Gerran parte hartu zuen AEBetako George Patton milatarrak hala zioen: *"norbait egon behar da goian, zergatik ez zu?".* Gure ustez, goian egoten saiatu behar gara, eta horren izenean ados jarri behar garela uste dugu. Baina ados jarri aurretik, diagnostiko bat egin behar dugu guztiok batera. Batera arituz gero, batera sortuko ditugu proiektuak, baina ematen du, momentuz, ezinezkoa dela diagnostikoa batera egitea.

Decía un militar de los Estados Unidos de la Segunda Guerra mundial, George Patton, que "*alguien debe de estar en lo alto, por qué no tú*", y creemos que hay que intentar estar en lo alto y por eso creemos que estamos obligados a ponernos de acuerdo. Pero creemos que para ponernos de acuerdo tiene que haber un diagnóstico compartido y común, y a partir de ahí pueden salir proyectos compartidos, y la realidad es que en este momento parece que no hay manera de hacer un diagnóstico compartido.

Alkatetzak egin duen memoriari begiratuz gero, ez dugu aurre egin behar zaien erronkei buruzko ezer ikusten. Memoriak negoziazioaren errelatua egiten du, eta aurrekontuaren kapituluak laburbiltzen ditu.

Haciendo un repaso a la memoria de la Alcaldía, vemos que la Memoria no habla de los retos de ciudad, más bien es un relato de la negociación y una explicación de los capítulos del presupuesto.

Gainera, memorian nahastu egiten dira erakundea eta alderdi sozialista. Are gehiago, oposizioaren zuzenketak aipatu egiten dira, eta sozialistena berezkotzat jotzen da; baina, izatekotan, aurrekontuari egiten zaion korrekzioa lirateke, eta ez

Es además una memoria que confunde lo que es la institución con lo que es el partido socialista, y de hecho, se mencionan las enmiendas de los grupos de la oposición, y la del partido socialista se considera como propia, en cuyo caso sería

zuzenketa bat.

Gure ustez, memorian, muzin egiten die alkateak erantzukizunei, eta baloiak kanpora botatzen ditu. Oso deigarria den esaldi bat dago: "*Kapituluetan egon diren hainbat ziurgabetasunek eragin dute atzerapen hau, batez ere diru-sarrerei dagokienean."* Ez dugu ulertzen, eta ez dugu ulertzen Osoko bilkura hau gaurko egunez egin behar izatea aurrekontua onartzeko. Azken hamar urteetan, inoizko beranduen ari gara aurrekontua onartzen, eta oraindik ez dakigu atzerapenaren errua nori leporatuko dioten: EAJri, jarrera desatsegina izateagatik; kontu-hartzaileari, berria delako; edo aurten hauteskundeak egin izanari.

Aurrekontua berandu aurkeztu zuten, eta berandu ari gara onartzen. Eta memoria azken orduan aurkeztu dute eta gaizki dago bi arrazoirengatik:

Alde batetik, datu okerrak dituelako, eta bestetik, akordiorako gogorik ez duelako pizten. Gure ustez, asko jartzeko premia horretan gobernu-taldea ez da etorri bat, ez baitu negoziatu eta horma baten jarrera hartu duelako.

Hiriak duen egoera ikusita eta ados jartzeko premia edukita, esango nuke hain-

una corrección al presupuesto, y no una enmienda.

Es una memoria en la que creemos no se asumen las responsabilidades que tiene el Alcalde y echa balones fuera. Una de las frases que llama la atención es "*determinadas incógnitas en los capítulos fundamentalmente de ingresos provocan estos retrasos*" pues no la entienden, y no entienden que a fecha de hoy se tenga que celebrar este Pleno para aprobar el presupuesto, siendo el presupuesto que más tarde se aprueba en los últimos diez años, y no saben a quién se va a achacar la responsabilidad, si al PNV por sus actitudes desagradables, si a que el interventor es nuevo, o a que ha habido elecciones este año.

Es un presupuesto que se presenta tarde, y se aprueba tarde; y es una memoria que se presenta tarde porque se presenta a última hora y que está mal por dos cuestiones:

Por una parte, porque tiene datos incorrectos, y por otra parte porque es una memoria que poco invita al acuerdo, y creen que la necesidad de ponerse de acuerdo no ha sido compartida por el equipo de gobierno, porque no ha negociado y ha sido un muro.

Ante esta situación de la ciudad y la necesidad de llegar a un acuerdo, creo que

bat modutara azaldu dugula gure jarrera ona azken lau hilabeteetan; eta alderdi sozialistarekin talka egin dugu. Eta gure asmo on horren adierazpenik handiena izan zen ez genuela osoko zuzenketa aurkeztu, akordioa lortzeko galga izango zela iruditzen zitzaigulako.

Akordio bila izan gara une oro, eta, ez dugunez lortu, abstentzioaren alde egingo dugula iragartzen dugu.

Bozkatzeko ekarri ditugun zuzenketak lotura estua dute herriaz egin dugun diagnostikoarekin.

Erkidegoak baino balio erantsi gordin txikiagoa dugu abeltzaintzan, arrantzan eta industrian. Horregatik, plan estrategikoaren ildoaren bidetik, lehen sektorea bultzatzeko plan baten alde gaude.

Batezbeste, gure industriak txikiagoak dira, eta Eusko Jaurlaritzak baditu estrategia batzuk enpresak handitzeko eta lehiakorrago bihurtzeko; eta Eibarren inguruko herrietan baino datu okerragoak badauzkagu, gure enpresei laguntzeko esfortzu handiagoa egin behar dugu, eta horregatik enpresek dituzten erronka-teknologiak sustatu nahi ditugu: 120.000 euroko handitzea proposatzen dugu, alderdi sozialistak proposatu duen murriz-

hemos mostrado esa voluntad de diferentes maneras en los últimos cuatro meses, y hemos chocado con el partido socialista, y la mayor muestra de esa voluntad fue que a la hora de presentar las enmiendas no presentamos una enmienda a la totalidad, porque considerábamos que iba a ser un freno para llegar a un acuerdo.

En todo momento hemos intentado llegar a un acuerdo y al no conseguirlo, anunciamos la abstención.

Las enmiendas que se traen a votación vienen unidas al diagnóstico que hacemos de la situación que tiene la ciudad.

Tenemos un valor añadido bruto agropesquero industrial inferior al de nuestra Comunidad, y por ello, y siguiendo las líneas del Plan Estratégico, planteamos un plan para impulsar el primer sector.

Tenemos un tamaño medio de las empresas industriales inferior, y hay estrategias por parte del Gobierno Vasco para intentar aumentar el tamaño de las empresas para mejorar su competitividad, y si en Eibar todavía tenemos el dato peor que el del entorno, hay que hacer un esfuerzo extra para ayudar a nuestras empresas, y por ello plantemos impulsar los retos tecnológicos de las empresas y planteamos aumentar en 120.000 euros,

keta ez bezala.

Inguruan baino zerbitzu-establezimendu gehiago dugu, eta horrek oreka apurtzen du, lehen sektorearen kaltetan.

Aurten, lehen sektoreko bi negozio abiatu nahi izan dituzte, baina bertan behera geratu dira. Uste dugu hirigintza-plana, Herri Antolaketako Plan Orokorra, berrikusi behar dela, lehen sektorea lehiakorra izan dadin. Eta landa-inguruko pistak konpontzeak beharrazkoa izaten jarraitzen du, baina Udalak beste aldera begiratzen du.

Gu ez gaude ados, baina apustu berria zerbitzu-hiri bat bultzatzea bada, konpondu beharreko kontu asko dago: kaleak ezin dira zikin egon, eta 50.000 euro gehiago eskatzen ditugu kale-garbiketa hobetzeko; 122.000 euro eskatzen ditugu espaloiak handitzeko. Perco-ren inguruko esku-hartzeak proposatu ditugu, baita aparkalekuak hobetzea ere. Seinaleak hobetu behar dira, Miguel de Aginaga kaleko aparkalekua asfaltatu, TAO zentroraino zabaldu, geltoki intermodala aztertu, *El Casco*ren eraikina aparkaleku bihurtu, aparkaleku bat egin Matxarian edota aparkaleku bat egin Errekatxun.

Urtean egiten den kontratu-kopurua ba-

frente al recorte planteado por el partido socialista.

Tenemos un porcentaje de establecimientos de servicios superior al del entorno, lo cual conlleva un riesgo de desequilibrio con el sector primario.

Pero este año ha habido dos intentos de poner en marcha negocios del sector primario que no han salido adelante, y creemos que hace falta una revisión del Plan de Ordenación Urbana para que el sector primario sea competitivo, y el arreglo de las pistas rurales sigue siendo una necesidad que no se está atendiendo por parte del Ayuntamiento.

Si la apuesta de la ciudad sigue pasando por ser una ciudad de servicios, apuesta que no compartimos, no puede ser que las calles estén sucias y por ello plantean un aumento de 50.000 euros para reforzar la limpieza, y 122.000 euros para ampliar aceras, y hemos planteado acciones del Perco así como mejorar los aparcamientos, la mejora de la señalización, asfaltar el parquin de Miguel de Aginaga, ampliar la OTA al centro con viñeta para el residente, estudiar la estación intermodal, rehabilitar como parquin el edificio *El Casco*, hacer un parquin en Matsaria, o hacer un parquin en el solar vacío de Errekatxu.

Tenemos en Eibar un porcentaje de con-

xuagoa da Eibarren inguruan baino, eta kezkatuta gaude 2016n egin ziren kontratuen % 90 zerbitzuen sektorean egin zirelako. Eta halako kontratuek esan nahi dute Eibarko enplegua prekarizatzen ari dela.

Gure herrian egiten dituzten kontratuak zerbitzuetakoak badira, nekez haziko da ekonomiaren balio erantsia. Horregatik, langabeen kontratazio-aukerak ugaritzeko neurriak proposatu ditugu; eta, era berean, proposatu dugu enplegua lortzeko zailtasun handiak dituzten herritarrak kontratatzea mendi-garbiketan ari daitezen.

tratos registrados al año inferior al de nuestro entorno y nos preocupa que el 90% de los contrato realizados en el 2016 son en el sector de servicios, lo cual va ligado a lo que decía el señor Errasti de la precarización del trabajo en Eibar.

Si los contratos que se están creando en nuestra ciudad son del sector servicios, difícilmente se va a ir subiendo el valor añadido de la economía, y por eso hemos planteado ayudas a la contratación para impulsar la mejora de la empleabilidad de los desempleados; y hemos propuesto también la contratación de personas con difícil inserción laboral para limpieza de montes.

Gure BPG ere ingurukoena baino apalagoa da. Baina Eibarren aukerak badaude, eta heldu egin behar zaie. Hortxe dugu polo teknologikoa, eta hori garatzeko negozio-plana proposatu dugu. Udalak hausnarketa bat egin behar du gure herrian robotikaren aldeko apustua egiteko aukeraren inguruan.

Tenemos un PIB per cápita inferior también al de nuestro entorno; y hay oportunidades en Eibar, y hay que aprovecharlas, y ahí está el polo tecnológico, y por ello hemos propuesto renovar el plan de negocio para desarrollarlo, así como que el Ayuntamiento comience a hacer una reflexión sobre la posibilidad de impulsar la robótica en nuestra ciudad.

Biztanleriak urterik urte duen aldaketa alde batetik, eta gehiegizko zahartzea bestetik; datu horiek erakusten digute jendea alde egiten ari dela Eibartik, eta, kezkatu egiten gaitu, datu horiek gainerako datuekin batzean, denek hona garamatzatela ikusteak: talentu-ihesa dagoela

La variación interanual de la población y el índice de sobreenvejecimiento nos está indicando que hay gente que se está yendo de Eibar y nos preocupa que al unir estos datos con los del resto, todo indica que se está dando una fuga de talento en Eibar, y por ello planteamos

Eibarren. Horregatik, enpresetan praktikak egiteko bekak nahi ditugu, *Gazte* plana berritu nahi dugu, orain dela hiru urte iraungi baitzen. Ekintzaileei babesa eman nahi diegu, haiek sortuko baitute enplegua gure herrian. Gure proposamen hauek guztiak udal zirriborroak proposatzen duen murrizketaren guztiz aurkakoa dira.

Ekonomiaren garapenean eta enplegu sormenean bakarrik ez gara geratzen, gure proposamenek beste alor batzuk ere hartzen dituzte; kezka-iturri diren askoz datu gehiago dauzkagulako; eta horietako bat hauxe da: Eibarrek parketan, jardiñetan eta berdegunetan duen hiri-lurraren ehunekoa oso txikia da ingurukoekin alderatuta. EAEn % 14,4 da, Gipuzkoan %20,11 eta eskualdean % 8,11. Eibarren, ordea, % 3,39 bakarrik. Gune berde gehiago behar ditugu, herritarren bizikalitatea hobetzeko, landarediak atseginago, erakargarriago egingo du herria, ez bakarrik erosketatan etortzeko, bertan bizi eta geratzeko ere; horregatik, Udalari proposatzen diogu lurzorua erosi dezala, eta Altamirako bidea eraiki dezala, hartara Ordenamendu plana betetzeko. Bertara eraman hilerria eta Urkin birika berde bat sortu.

Hainbat proposamen egin ditugu, ez kopuruak hobetzeko akaso, baina bai giroa hobetzeko eta gune berdeen falta arin-

becas para prácticas en empresas, que se renueve el Plan de Juventud que caducó hace tres años, y que se apoye a las personas emprendedoras que son las futuras generadoras de empleo en nuestra ciudad, frente al recorte que se ha planteado en el borrador del gobierno municipal.

No sólo se hacen propuestas en materia de desarrollo económico y generación de empleo, porque hay muchos datos más que nos preocupan, y uno de ellos es que el porcentaje de suelo urbano ocupado por parques, jardines y zonas verdes, es muy inferior al del entorno; y así, si en Euskadi es el 14,40%, en Gipuzkoa el 20,11 %, y en la comarca el 8,11 %, en Eibar tan sólo es del 3,39%; por lo que hace falta impulsar zonas verdes qua vayan a repercutir en la calidad de vida, que hagan a la ciudad más atractiva no sólo para venir o para comprar; sino también para vivir y para quedarse, y por ello hemos planteado la compra de suelo y la construcción del vial Altamira para, en cumplimiento del Plan de Ordenación, trasladar el cementerio allí y generar un pulmón verde en Urki.

Hemos planteado propuestas más pequeñas que tal vez no ayudan a mejorar ese dato, pero sí que pueden hacer en-

tzeko. Bidebarrieta 35eko orubea atontzea, adibidez, zintzilikako lorontziak jarrita eta zabor-edukiontziak lurpean sartuta; halako neurriek beste itxura bat ematen diete kaleei.

tornos más agradables y paliar la falta de zonas verdes; como adecentar el solar de Bidebarrieta 35, instalar jardineras colgantes y soterrar contenedores, que pueden dar otra sensación de espacio a las calles.

Irisgarritasuna arazo larria da gurean; horregatik hobekuntzak proposatu ditugu Jardiñeta eta Aldatze auzoetarako.

Un problema es el tema de la accesibilidad y para ello hemos planteado una mejora importante en los barrios de Jardiñeta y Aldatze.

Pozik gaude, hainbat hauteskunde-kanpaina eta auzo-bileretan iragarri ostean, azkenean Jardiñetako igogailua aurrekontuan dagoelako. Baina ez dugu uste Muzategitik egin beharko litzatekeeniko, San Juan kaletik atera beharko litzatekeelakoan gaudelako.

Nos congratulamos de que después de muchas campañas electorales anunciándolo y muchas reuniones de barrio anunciándolo, se haya recogido el ascensor a Jardiñeta, aunque no está de acuerdo con que se haga desde Muzategi, y sí que insisten en que se haga desde la calle San Juan.

Birjiñapeko igogailua dago egiteke eta irisgarritasuna hobetu behar da Saratsuegin, Ubitxa auzoaren irisgarritasun plana eta Bidebarrieta-Errekatxuko igogailua ere egiteke daude.

Queda pendiente el ascensor de Birgiñape y mejorar la accesibilidad de Saratsuegi, un plan de accesibilidad del barrio de Ubitxa, el ascensor de Bidebarrieta-Errekatxu.

Eibarko Txikito kaletik Calbetón kalerako sarbidea hobetzea proposatu dugu, eta gustatuko litzaiguke Pagaegi eta Jardiñeta arteko zatiaren irisgarritasuna hobetzeko obrak batzordean adostea. EAJk egin zuen zuzenketa baten harira alderdi sozialistarekin adostuta aurkeztu ziren hainbat aukera daude, eta aurrekontuan horietako bat sartu dute, baina eskaintzen

Hemos planteado mejorar la accesibilidad a la calle Eibarko Txikito desde la calle Calbetón y nos gustaría que el proyecto de mejora de accesibilidad de Pagaegi a Jardiñeta fuera consensuado en comisión, porque hay varias alternativas que se presentaron en base a una enmienda de su grupo y acordada con el partido socialista, y se ha puesto una en el pre-

den aukera hori adostua izatea nahi dute.

Bestalde, kezkatuta gaude, trafiko astuna dugulako, eta autoak harrapatutako oinezko ugari dagoelako, inguruko herrietan baino gehiago. Badago mugikortasun plan bat, non trafikoa baretzeko ekimenak dauden.

Okerrena da badagoela guk esandako guztia egiteko bidea; eta ez dakigu ilusioa galduta edo ekimenak aurrera ateratzeko gaitasun falta dagoen. Gure ustez, gobernu-proposamenak egin ditugu, baina, egi benetan, Udala bururik gabeko oilaskoa bailitzan ikusten dugu.

Dio Mendicute jaunak askotan hitz egin duela Osoko bilkuran ardiei buruz, eta gaur Fitzhugh Dodson esaldi bat ekarri nahi duela gogora: *“helbururik gabe eta haiek lortzeko planik gabe, nahi gabean asmatu duen ardia bezalakoa zara”.* Eta guk hala ikusten dugu gobernu-taldea, helburu jakinik gabe abiatzen.

enpresak baina beren proiektua erabat sendotzeko laguntza behar dutenak), OSTEKO (langileak berak enpresaren jarraipenaren jabe egin daitezen). Dirulaguntza ildo horiei esker, 10 enpresa berri sortu dira Eibarren eta bat sendotu egin da.

(Ayudas a las empresas que habiendo iniciado una actividad empresarial, requieren un apoyo para la consolidación del proyecto). “OSTEKO” Para la sucesión de empresas por parte de sus trabajadores y trabajadoras. Estas líneas de subvenciones han promovido la creación de 10 empresas en Eibar y la consolidación de otra más.

Turismo-bulegoa. Turismoaren sektoreari laguntza. Lanean dihardugu, Eibarrek bere izaerarekin bat datorren turismo-bulegoa izan dezan. Saltokiak sustatu nahi ditugu –aisialdia eta zerbitzuak- Eibar eskualdeko buru eta EAEko zentro geografiko dela abiapuntu hartuta. Bertatik bertarako saltokien garrantzia erabatekoa dela zabaldu nahi dugu, eta, horretarako, diru-laguntzak ditugu eskura, enpresak sustatzen laguntzeko eta enplegua egonkortzeko.

Oficina de Turismo. Apoyo al empleo en el sector turístico. Seguimos dando los pasos necesarios para que Eibar cuente con una oficina de turismo con personalidad propia. Seguiremos aprovechando las oportunidades de generación de empleo que ofrece el desarrollo turístico. Impulso al sector del comercio, ocio y servicios, en nuestro empeño de fomentar el papel de Eibar como cabecera comarcal y centro geográfico de Euskadi, impulsando la creación y consolidación del empleo a través de agentes colaboradores, ayudas a la creación de empresas y subvenciones para el comercio de proximidad desde el convencimiento de su papel estratégico.

Eibarko enpresa txiki eta ertainei dirulaguntzak ematen dizkiegu ekosistema berritzaile berri bat sortzeko, lehiakortasuna hobetuko duten ikerlanak egin ditzaten. Programa horri esker, Udalak indartu

Damos continuación a las ayudas a las pequeñas y medianas empresas eibarresas, con el objetivo de generar un nuevo ecosistema innovador mediante la realización de estudios para la mejora com-

egiten du Eibarko empresa txiki eta ertainekin duen konpromisoa.

petitiva. Gracias a este programa, el Ayuntamiento refuerza su compromiso con la innovación y las pymes de Eibar.

Gero eta lehiakorragoa da enpresa-mundua, eta horrek beharrezko egiten du berrikuntza sustatzea, teknologiarekin bete-betean dabiltzan enpresei laguntzea eta negozio-eredu berriei bidea irekitzea. Horren harira, Eibarko Udalak, IK4-Teknikerrek eta BIC Gipuzkoa Berrilanek hitzarmena sinatu genuen, teknologia aurreratuekin dabiltzan enpresen mintegia sortzeko.

En un entorno cada vez más competitivo se hace imperativo apostar por la innovación, fomentar las empresas de alto componente tecnológico e impulsar el desarrollo de nuevos modelos de negocio. En este contexto, el Ayuntamiento de Eibar junto con IK4-Tekniker y, con la colaboración de BIC Gipuzkoa Berrilan, firmamos un convenio para la construcción de una incubadora para empresas tecnológicamente avanzadas.

Horrekin batera, Eibarko Udalak, eta udalerriko ekonomia sustatze aldera, BIC Gipuzkoa Berrilan enpresaren egoitza zati bat empresa-mintegi bihurtu du, eskualdeko ekintzaileen topagune izan dadin.

Paralelamente, el Ayuntamiento de Eibar, en su apuesta por reforzar e impulsar la actividad económica del municipio, ha convertido parte de la sede de Bic Gipuzkoa Berrilan en un vivero de empresa, ofreciendo la oportunidad de compartir espacios de trabajo a emprendedores de la Comarca.

Elkarlanaren eta esfortzuaren aldeko apustuak *BNI Armagin* taldea sortzea ekarri du. Hor, bertako 45 bat enpresaburu elkartu dira, egun daukaten bezero-kopurua handitzeko asmoz: erreferentzien marketinga egiteko programa egituratu bat dute, eta horrek negozio-aukerak ugaritzen ditu.

La apuesta por la cultura de la colaboración, el esfuerzo y el trabajo en equipo se ha concretado en la creación en Eibar del grupo BNI Armagin, conformado por aproximadamente 45 empresarios locales, interesados en ampliar sus clientes gracias a un programa estructurado de marketing de referencias, posibilitando la creación de oportunidades de negocio.

Egun sortzen ari diren sektore berrietan lanbideak sortu nahi ditugu, horrek balioetsiko dituelako berrikuntza eta sormena, eta horregatik *Ibilbide Teknologikoak* ekimena martxan dugu: gaztetxoentzako errobotika-tailerrak dira, teknologian zaletu daitezen eta STEMerako (zientzia, teknologia, ingeniaritza eta matematika) interesa piz dakien.

En nuestro empeño para la creación de vocaciones en sectores emergentes para poner en valor la innovación y creatividad, hemos venido desarrollando los denominados "Ibilbide Teknologikoak", talleres de robótica para los más jóvenes con el objetivo de fomentar las vocaciones tecnológicas e impulsar su interés en el campo de las STEM (Ciencia, Tecnología, Ingeniería y Matemáticas) y su formación en este ámbito.

Ohartu gara Eibarko langabeen hiru laurdenek prestakuntza-maila baxua dutela; horregatik aurten, lehen aldiz, 500 euroko diru-laguntzak banatu ditugu, langabe horiek lana eskuratzeko aukera gehiago izan dezaten. Diru-laguntzak langabeek eskatu behar dituzte. Bostehun euroko laguntza enplegua hobetzeko egoeran daudenek ere eska dezakete, alegia 1200 eurotik behera kobratzen dutenek.

Tomando como referencia que tres cuartas partes de las personas desempleadas en Eibar tienen un nivel de cualificación bajo, este año por primera vez, hemos habilitado ayudas hasta 500 euros para aumentar las posibilidades de empleabilidad para las personas desempleadas que la soliciten y también, para los trabajadores en situación de mejora de empleo, es decir, aquellos con un sueldo inferior a los 1.200 euros.

Politikak konponbideak eman behar dizkie herritarrei, eta guk 31,7 milioi euro baino gehiagoko aurrekontua osatu dugu horretarako.

La política debe servir para dar soluciones a los problemas de los ciudadanos, nosotros para ello hemos elaborado unos presupuestos que suman más de 31,7 millones de euros.

Aurrekontuei atxikita Alkatetzak egindako memoria dago, non arrazoituta azaltzen diren dirusarreren egoera-orriaren 9 partidak eta gastuen egoera-orriaren 9 parti-

En la memoria de Alcaldía que acompaña a los presupuestos, está razonada cada una de las 9 partidas tanto del Estado de los Ingresos como las 9 partidas

dak.

Horrez gain, uste dugu nabarmendu behar direla aurrekontuen egonkortasuna bermatzeko helburuak betetzeari buruzko txostenaren edukia eta finantza iraunkorrei buruzko txostena bete izana.

Lehen txostenaren arabera, % 13,89ko zorra dugu (iaz % 14,88koa zen, eta aurreko urteetan, % 18,80koa eta % 21,35ekoa, hurrenez hurren). Kopuru txikiak direla esan daiteke, Foru Aldundiak % 77 baimentzen duela aintzat hartuta. Kopuru horiek balioetsi egin behar dira, krisialdi-urteak bizi berri ditugulako eta, hala ere, herritarrei ematen diegun zerbitzuak ez ditugulako murriztu. Eta hori bideragarria izan bada, politikan egiten den kudeaketari eta Udalak duen lan egiteko modu profesionalari eskerrak da: gastu publikoa arduratsu, arrazoiz eta kontrolez kudeatzeak dakar Udalak zorneurri onargarria edukitzea. Ekonomiari eta finantzei buruzko plana ondo bete dugu, nahiz eta plan berri bat sortu behar dugun egungo aurrekontuko desorekak zuzentzeko. Egoera oraingo ekitaldian edo hurrengoan zuzendu behar dugu, derrigorrez.

Horrez gain, hausnarketa egin behar dugu

del Estado de los Gastos.

Creemos que también debemos destacar el informe sobre el cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria y el cumplimiento del informe de sostenibilidad financiera.

El primero indica que nuestro endeudamiento es del 13,89% (el pasado año fue del 14,88% y los anteriores del 18,80%, 21,35% respectivamente), cifras reducidas, teniendo en cuenta que la Diputación Foral permite llegar hasta el 77%. Esto hay que ponerlo en valor, después de los años de crisis sufridos y sin hacer recortes en los servicios que prestamos al ciudadano. Y ello es posible gracias a la gestión política y al alto grado de profesionalidad y competencia de la intervención municipal, junto con la responsabilidad, racionalización y control del gasto público, que permite presentar un Ayuntamiento con un grado de endeudamiento razonable. El plan económico financiero en vigor lo hemos cumplido satisfactoriamente, si bien tenemos que hacer un nuevo plan económico financiero para corregir los desequilibrios del presente presupuesto. Esta situación la debemos corregir obligatoriamente en este ejercicio y/o en el próximo.

También debemos hacer una reflexión

udal-taldeekin izan dugun negoziazio-prozesuaz.

Urtarrilaren 9an aurrekontuaren lehen zirriborroa itxi genuen, eta talde guztiei itunak lortzeko eskaintza zintzoa egin genien, iaz lortu bezala. Hala ere, aurten bazen desberdintasun bat, izan ere, talde guztiek egindako eskaera guztiak batera 9 milioi eurotik gorakoak ziren eta horrek hasiera-hasieratik eman dizkigu arazoak. Kopuru horiek onartezinak ziren, aurrekontuak ezin duelako neurri horretako partidarik eduki.

Egoera ikusita, oposizioko taldeei gaiaren inguruko hausnarketa egiteko eskatu genien, eta iradoki aldatu beharreko kopuruak iazkoen antzekoak izan behar zirela, taldeen arteko hitzarmenak posible izateko.

Halako egoerarik ez zegoen beste inon Euskadin, eta oposizioarekin akordioak lortzea aztertzen hasi ginen. Edonola ere, negoziazioak hilabetez atzeratu genituen, eta tarte horretan, zuzenketa guztiak aintzat hartu eta aurrekontuan sartzeko modurik ote zegoen aztertzeko eskatu genien udal teknikariei.

sobre el proceso de negociación que hemos abierto con los grupos municipales.

Cuando cerramos el primer borrador de presupuestos, 9 de enero, nos ofrecimos a todos los grupos con la intención sincera de llegar a acuerdos, como también hicimos, y logramos, el año pasado. Es verdad que este año desde el minuto uno nos dimos cuenta de dificultades añadidas, y no son otras que la disparada petición de los grupos que en su conjunto superaban los nueve millones de euros, cifra imposible de asumir ya que el presupuesto no puede disponer de partidas de ese calado.

No obstante, hicimos una llamada a la reflexión a los grupos de la oposición y les sugerimos que las cantidades para modificaciones presupuestarias debían ser similares a las alcanzadas el pasado ejercicio, y que posibilitó llegar a acuerdos con todos los grupos.

En esta situación (no generada en ninguna otra institución de Euskadi) comenzamos a explorar la posibilidad de llegar a acuerdos con la oposición. Sí es verdad que tomando en consideración cada una de las enmiendas le pedimos a toda la estructura técnica municipal el estudio del encaje económico de las mimas, retrasando un mes más la negociación.

Negoziazio-aroa EH Bildurekin hasi genuen, zintzo, tolesgabe eta adeitsu. Lehen bileran argi utzi genuen bideragaitza izango zela negoziazioa, baldin eta proposatutako guztia lortzeko asmoa bazuten. Baina proposamen guztiak aztertu eta behar adina malgutasun edukiz gero, akordioak lortuko genituela ematen zuen, zuzenketak onartuz, erbibideko eginez eta arrazionalizatuz.

Zuzenketetatik bi, biak batera, milioi eurotik gorakoak ziren. Bat EKOzenterra martxan jartzea (500.000 €) eta bestea *Tailer-eskola* antzeko ekimen bat abiatzea (580.000 €). Azkenean, zentzuzko proposamenak topatu genituen: EKOzenter hondakinak berrerabiltzeko tresna denez, hondakinen kudeaketa esleitu diogun enpresa izan beharko litzateke hura martxan jartzeko arduraduna. Udalak jarriko luke aurrekontua ekimena aurrera ateratzeko. Tailer-eskolari dagokionez (580.000 €), ikerlan bat proposatu genuen, haren beharra benetakoa ote den aztertzeko eta, hala balitz, zer neurriko zerbitzua beharko genukeen jakiteko. Itsu-itsuan abiatuz gero, bikoiztasunen bat suerta liteke, eta legeak debekatu egiten die hori udalei; hau da, Lanbideren oniritzia behar dugula (tailer-eskola zaharra jada desagertu zen INEMek babestutako eki-

Las primeras negociaciones las abrimos con Eh Bildu, con un espíritu sincero, franco y cordial. Aclarando desde la primera reunión que si la pretensión era conseguir lo propuesto, el acuerdo era inviable; pero si podíamos estudiar todo lo planteado y si mostrábamos la flexibilidad pertinente parecía que de las 23 enmiendas podíamos tener la posibilidad, asumiéndolas, transacionadolas y racionalizándolas, de llegar a acuerdos.
Dos de ellas, solas, superaban el millón de euros. Una era la puesta en marcha de un ECO center (500.000 euros) y la otra la creación de una especie de *Escuela Talle*r (580.000 euros). Dimos con propuestas razonables, ya que si el ECO center es una herramienta de reutilización de residuos, debería ser el gestor a quien tenemos efectuada la gestión el encargado de ponerlo en marcha. Asumiendo desde el presupuesto municipal la cantidad necesaria para el mismo. Para la escuela taller propusimos antes de su puesta en marcha (580.000 euros), basarla en un estudio que justifique su necesidad y dimensionamiento, pero sobre todo, que no estemos cayendo en duplicidades no permitidas por ley a los Ayuntamientos. Es decir, debemos tener el visto bueno de Lanbide. (Acordaros que la antigua escuela taller fue un pro-

mena izan zelakoan bat gentozen). Gainerako zuzenketa gehienak onartu edo erdibideko egin ziren, baina EH Bilduren asanbleak ez zuen akordio-zirriborroa onartu.

Aldi berean, EAJrekin ireki genuen negoziazioa eta aurrez jakinarazi genien proposatu zituzten kopuruak edozein negoziazio-aukeratik kanpo zeudela (5.100.000 €, txarto kalkulatuta, proposamenak 6 milioitik gertuago baitzeuden). EAJren proposamena onartuz gero, sozialisten zirriborroa erabat baztertu behar zen eta EAJrena baino ez onartu (hori ez zen serioa).

Beranduago, agiri berri bat aurkeztu zuten, proposamenen erdiak eginda, baina, hala ere, bideragaitza zen, altxortegiko gerakinekin finantzatzeko eskatzen baitzuten. Baina, ondo dakigu guztiok gerakina ezin dela aurrekontuan sartu, legeak berariaz debekatzen du-eta.

Martxoaren 17an, zirriborroa aurkeztu eta 70 egun beranduago, azken eskaintza helarazi zigun EAJk; bertan, 1.250.627 €ren proposamena egin zuten. Guk kopuru orokorra onartzea proposatu genien, zuzenketak onartuz edo erdibideko eginez. Baina, harrigarria bada ere, ezetz esan zuten. Esan ziguten abstenitu

yecto respaldado por el desaparecido INEM) la mayoría del resto de las enmiendas fueron aceptadas o transacionadas, pero su asamblea rechazó el borrador de acuerdo.

A la vez abrimos las negociaciones con el PNV; ya les habíamos notificado que las cifras propuestas estaban fuera de cualquier propuesta de negociación (5.100.000 mal calculados ya que las propuestas estaban más cerca de los 6 millones.) Propuesta que suponía vaciar todas las propuestas socialistas del borrador de presupuestos y sólo incluir la propuesta del PNV (nada serio).

Fechas más tarde entregaron un nuevo documento bajando a la mitad las propuestas, pero en todo caso imposible de asumir, ya que seguían solicitando que fuese financiado con remanentes de tesorería. Cuando todos sabemos que el remanente no puede estar incluido en el presupuesto; lo prohíbe expresamente la ley.

El pasado día 17 de Marzo, 70 días después de entregado el borrador, nos hicieron llegar su última oferta, más realista con propuestas que sumaban 1.250.627 euros. A lo que les propusimos aceptar la cantidad global del 1.250.627 euros asumiendo y/o transacionando las enmiendas. La sorpresa fue cuando dijeron

egingo zirela, baina ez zutela gure erantzuna onartuko. Gure ustez, EAJk hasiera-hasieratik hartu zuen erabakia, eta haien helburu bakarra zen aurrekontuen inguruko akordiorik ez erraztea.

IRABAZIrekin edukitako negoziazioak beste erritmo bat eduki du. Gainerako taldeei bezala, azaldu genien ez zela zentzuzkoa 2 milioiren proposamenak onartzea eta eskatu genien jaitsi zitzatela beren eskaerak 2016ko (300.000 euro) kopuruen ingurura. Hilabete beranduago, 885.000 euroren proposamena helarazi ziguten. Zuzenketaz zuzenketa aztertu genuen eta, azkenerako, 475.000 euro adostu genituen. Horri eskerrak gehiengoa lortu genuen eta aurrekontua onartu genuen, aurreko ekitaldietan egin dugun bezala.

Eskerrak eman nahi dizkiogu IRABAZIri akordioagatik, eta taldeei esan nahi diegu prest gaudela, beti bezala, herriari on egingo dioten hitzarmenak lortzeko. Onartu ditugun aurrekontuak 1.300.000 euroko gehikuntza dute, ahal izanez gero, oposizioak egindako proposamenak aurrera ateratzeko. Aukera hau prest edukitzeak denbora aurreztuko digu etorkizunean.

que no, que ellos se iban a abstener pero no aceptaban la propuesta. Creemos que desde la petición de los 6 millones hasta la de 1.250.627 euros desde el primer minuto la decisión ya estaba tomada por el PNV y el objetivo no era otro que no facilitar los presupuestos con acuerdo.

La negociación con IRABAZI ha tenido otros ritmos, les razonamos, como a todos los demás grupos, que propuestas de 2 millones de euros era imposible de asumir y que estudiara la posibilidad de bajar sus propuestas en torno a cantidades similares a las acordadas en 2016 (300.000 euros). Un mes más tarde nos hizo llegar una nueva propuesta de hasta 885.000 euros, que estudiando enmienda por enmienda, nos ha permitido llegar a un acuerdo con esta formación por un montante de hasta 475.000 euros. Esto nos permite sacar los presupuestos con acuerdo mayoritario, como hemos hecho cada uno de los ejercicios anteriores.

De cualquier forma agradecer a IRABAZI el acuerdo alcanzado y a los grupos ofrecerles que estamos en disposición, como siempre, de seguir aunando voluntades para conseguir hacer una ciudad mejor. Para ello estos presupuestos conllevan una partida de incremento 1.300.000 euros para poder desarrollar, si se dan las condiciones, algunas de las

Esfortzuek ez dute herriaren ekonomia kinkan jartzen, lehen esan dugun bezala; gure ekonomia onbideratuta dago eta hala jarraitzea nahi dugu.

propuestas planteadas por la oposición, esta opción nos ahorrará tiempo en tramitaciones de futuros proyectos. Estos esfuerzos no ponen en riesgo la economía de la ciudad que como decíamos anteriormente, está saneada y queremos que siga estándolo.

Azkenik, guztioi eskerrak eman nahi dizkizuet, adostasuna lortzeko egin duzuen lanagatik.

Gure ustez, aurrekontu hauek tresna egokia dira Eibarrek hobetzen eta aurrera bidean jarrai dezan, eta horregatik, baiezko botoa emango dugu."

Por último dar las gracias a todos por el trabajo hecho en la búsqueda de puntos de acuerdo.

Nosotros creemos que estos presupuestos son la herramienta idónea para que Eibar siga mejorando y avanzando. Por eso vamos a votar que sí."

Ondoren alkate jaunak hartu du hitza, eta esaten du ona dela autokritika egitea, negoziazio bat egon eta negoziazioaren ataka gainditzen denean, hortik datorren arrakasta alde biena izaten baita, baina ataka gainditu ezean, biek ala biek dute erantzukizuna.

Interviene a continuación el señor Alcalde quien comienza diciendo que es bueno hacer una autocrítica, ya que cuando hay una negociación, si se llega a buen puerto es éxito de las dos partes, pero si no se llega, es responsabilidad de cada una de ellas.

Argitu du bera ez dela bileretara joan, baina badakiela bere taldeko ordezkariek egindako lanek berme guztiak dituztela. Alderdi Sozialistak negoziatzeko helburuarekin izendatu zituela, eta nork bere estiloa duen arren, alkateak guztien lana babesten duela.

Aclara que aunque no haya ido físicamente a las reuniones, avala el trabajo hecho por los representantes de su grupo, pues el partido socialista ha negociado con personas nombradas al efecto, y que las mismas tienen todo su respaldo, cada uno con su estilo.

Arraroa iruditzen zaio ordezkariak arrandiaz eta harrokeriaz joan izana negoziazioetara, nahitaez ados jarri behar zirelako —ez dutelako gehiengoa—. Gainera, gehiengoak adostuta dituzten arren, bere alderdia hitzarmenak lortzen saiatu da, halakoa delako beren lan egiteko; proiektu batek duen babes mailaren arabera irabazten duelako zilegitasuna.

Es raro pensar, prosigue, que hayan ido con altanería o soberbia a las negociaciones porque tenían la obligación de ponerse de acuerdo, ya que no tienen la mayoría, y que aun teniendo mayorías acordadas su partido ha intentado llegar a acuerdos, pues ésta ha sido su forma de trabajar, ya que los proyectos cuanto más respaldo tengan; más legitimidad pueden tener.

Alkateak erantsi du, iazkoarekin alderatuta, negoziazioaren abiatze-puntuak beldurra ematen zuela, baina uste zutela horixe izango zela joko-eremua. Bistan dela aurrekontuaren zirriborroa apalagoa izan dela, iaz baino bi milioi eta erdi gutxiago zeudelako eskura, eta aurten egindako zuzenketetako zenbatekoak iazkoak baino altuxoagoak izan direla, izan ere, lau edo bost bider handiagoak ziren 2016ko hasierako proposamenekin alderatuta.

Añade que el punto de partida de la negociación asusta, ya que tenían la experiencia del año pasado, y pensaban que ese sería más o menos el campo de juego, y que de hecho, el borrador de presupuesto ha sido más bajo, dado que no se disponía de dos millones y medio que se dispuso el año pasado, y que se encontraron con unas propuestas de enmiendas sensiblemente superiores que multiplicaban por cuatro o cinco las propuestas iniciales para el presupuesto del 2016.

Esan du ez dagoela idatzitako araurik, baina azken bost edo zortzi urtetan egondako negoziazioetatik ondorioztatu daitezkeela; 1.300.000 €ko kopurua gutxi gorabeherakoa zela, baina ia 10 milioi euroko zuzenketak jasotzea beldurgarria dela.

Aunque no haya normas escritas, continúa, hay unos usos y costumbres, y las normas de juego pueden deducirse de procesos de negociación de estos cinco u ochos años; y la cantidad de 1.300.000 euros era una cantidad orientativa; pero recibir enmiendas por casi diez millones de euros, asusta.

Aurrerago esan du ez duela merezi negoziazioen barrenak nahasten hastea, eztabaida batean esaten diren gauzak ez direlako hotzean egiten diren mugimenduekin erabat lerratzen.
Dio balitekeela bere Memorian akatsak egotea, EAJren zuzenketetan zeuden bezala, eta hala onartu dutela.

Alkatearen hitzetan, gobernu-taldea beti egon da langabeziarekin kezkatuta; bere alderdiaren programan enplegurako ekimen asko zegoen, eta Inguruko Plan Zuzentzaile bat egin da, bide bat urratu eta sendotu daitekeen ikusteko. Baina, dioenez, ez zaio erantzukizunik eskatu benetan dutenei. Berak bestelakoak entzun nahi zituela: Udalak polo teknologikoaren alde egingo duela eta SPRIk ere poloaren alde egin dezan borrokatuko dela, nahiz eta ardurak benetan Udalarenak ez izan.

Dio eskualdeko enplegu-mahaia sortu dutela, Eibarrek hala eskatuta, baina udalez gain inolako erakunderik ez duela ekimenik proposatu, ez Eibarrentzat ezta eskualdearentzat ere, eta bere taldea pozarren egongo litzatekeela enplegua

Dice más adelante que no cree que merece la pena sacar las tripas de lo que han sido las negociaciones, porque en la batalla dialéctica se pueden decir cosas que en frio se matizarían de otra manera.
Afirma que puede que en su Memoria hubiera errores, como también los había en las enmiendas del PNV, que así lo reconocieron.

Es verdad, continúa, que el desempleo siempre ha preocupado al equipo de gobierno, y que en el programa de su partido se planteaban muchas iniciativas destinadas al empleo, y es verdad que se ha hecho un Plan Director del Área para ver si hay capacidad de consolidar un camino; pero también es verdad que no se ha apelado a la responsabilidad de quienes verdaderamente la tienen, ya que le hubiera gustado oír que aunque el Ayuntamiento va a trabajar por el polo tecnológico, y que se va a pelear para que la SPRI apoye el polo tecnológico, ya que es su responsabilidad.

También es verdad, prosigue, que se ha creado una Mesa de Empleo Comarcal a propuesta de Eibar, pero que ninguna institución que no sea los ayuntamientos, ha puesto iniciativas concretas para Eibar o para la Comarca, y que su Grupo esta-

hobetzeko proposatzen diren ekimen guztiekin, baina oso bestelako kontua dela Eibarrek proposatutakoak beste erakunde batzuen babesa jasotzea.

ría encantado con todas las iniciativas que se propongan para mejorar el empleo, pero que otra cosa es que luego lo planteado por Eibar sea apoyado por otras instituciones.

Erantsi du Enplegu sailburuordearekin hitz egin duela, eta hark adierazi diola prest dagoela herriaren alde lan egiteko; baina enplegu kontuetan erabakitzeko gaitasuna duten beste erakundeetara jo behar dela.

Afirma también que él ha estado con el Viceconsejero de Empleo y que están dispuestos a hablar de todo lo que haga falta para trabajar por la ciudad; pero que también es bueno apelar a otras instituciones competentes en la materia.

Beraz, bidea elkarrekin egiteko prest badira, eskertzekoa izango da, horrek Eibarko enplegu aukerak hobetzeko balio badu; izan ere, enplegua bai da haien erantzukizuna eta kezka.

Si somos capaces de recorrer el camino juntos, continúa, será bienvenido, así como si ello sirve para mejorar la empleabilidad de Eibar, porque sí es algo que les ocupa y les preocupa.

Bilduri buruz hasi da hizketan eta esan du ulertzen duela nork bere talaiatik ikuspegi tremendista egitea, baina uste duela adostasun-puntuak ere badaudela eta badagoela elkarrekin egin beharreko bidea. Errasti jaunak onartu egin duela haren batzordean onartu zutela erabakia eta haiek beraiek Bilduren proposamenaren aurka egingo dutela Bilkura honetan; horrek ez du esan nahi, baina, egin beharreko bidea egiteko ez dagoenik.

Afirma que refiriéndose a Bildu entiende que cada uno desde su posición, haga un discurso tremendista, pero que él tiene la sensación de que existen puntos de encuentro y de que hay camino conjunto para recorrer, y que el propio señor Errasti ha reconocido que fue su asamblea la que adoptó la decisión; y que ellos mismos votarán en este Pleno en contra de lo que plantea Bildu, pero ello no quiere decir que no estén de acuerdo en que hay un camino a recorrer y poder materializarlo.

Alkateak jarraitzen du hizketan. Dio EAJk

Con el PNV, continúa en su intervención,

beti esan duela akordiorako jarrera duela, baita alkatearen taldeak berak ere. Edonola ere, azkenean, abstenituko direla eta Osoko Bilkura deitzeko garaia dela hedabideetan esan arren, egun hartan bertan bere taldeak onartutako agiri bat zegoen bere mahai gainean, eta, agendan, lau egunen buruan egin beharreko bilera bat. Beraz, egon egon dela aurrekontuko zuzenketen inguruko gutxieneko adostasuna.

indica que ellos han dicho que siempre han tenido voluntad de acuerdo y tiene que decir que su Grupo también, pero que el resultado final es que, a pesar de salir en los medios diciendo que se abstienen y de que ya va siendo hora de que se convoque el pleno; ese mismo día había un documento sobre la mesa que su Grupo ha aceptado y ese mismo día había una reunión planteada para cuatro días después, con lo cual ha habido un mínimo acuerdo sobre la base de las enmiendas al Presupuesto.

Irabaziri dagokionez, alkateak ulertzen du hainbat ekimen aurrera ateratzeko akordioa dagoela eta prest daudela haien proiektu nagusiaren bidea egiteko: Ipuruako komentua aterpetxe egitea. Baina bidea non amaitzen den ikusi beharko dela, oztopo askokoa baita: doako lagapena, hirigintzako kalifikazioa edo kirolari buruzko plan estrategikoa.

Con Irabazi, dice más adelante, ha entendido que hay un acuerdo para desarrollar una serie de iniciativas, y están dispuestos a recorrer el camino de su proyecto estrella del convento de Ipurua para albergue; pero que habrá que ver dónde acaba el camino, porque es un camino con muchos obstáculos: una cesión gratuita, la calificación urbanística, o el Plan Estratégico del Deporte.

Alkateak dio berak ez duela besteek irudikatutako muturreko egoera bizi, ados ez egon arren, guztiak Eibaren alde lanean jarraitzeko kapaz direla uste duelako. Eta, seguru asko, begi onez ikusten diren ekimenek aurrera egingo dutela.

Añade que él no vive la situación tremendista que se ha escenificado porque cree que son capaces, cada uno desde su posición, de seguir trabajando por Eibar y de intentar marcar perfil; y en ese proceso seguro que aquellas iniciativas que se

Beste kontu batera egin du jauzi. Altxortegiak duen gerakina aurrekontutik at lortzen diren akordioak aurrera ateratzeko balio duela esan du; baina ezin dela aurrekontuaren negoziazioan aurrekontuaz bestelako kontuez hitz egin.

consideren son buenas, irán para adelante.

El remanente de tesorería, continúa, para lo que sirve, entre otras cosas, es para que acuerdos que salgan al margen del Presupuesto puedan ejecutarse; pero lo que no se puede es, en la negociación del presupuesto hablar de otras cuestiones que no sea el presupuesto.

Erantsi du, atzo bertan, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuetan akordioa lortu zutela % 0.25 batekin; Eibarkoa baino ehuneko askoz apalagoarekin. Berak ez duela baztertzen aurrekontutik at dauden kontuez hitz egitea, baina aurrekontutik at edo kontraprestazioa duen hitzarmen baten bitartez, aurrekontu barnekoa ez bada ere; baina EAJk ezetz esan diola horri.

Añade que ayer mismo en los presupuestos del Gobierno Vasco con un 0,25% se llegó a un acuerdo; porcentaje mucho menor que el de aquí, y que no descarta hablar de cuestiones que están al margen del presupuesto, pero ello fuera del presupuesto o mediante un acuerdo que tenga una contraprestación, aunque no fuera presupuestaria; y que a ello se ha negado el PNV.

Alkateak dio ulertzen dutela negoziazioa egoki zen markoaren barruan egin dutela eta taldea azken urteetako jarrerarekiko fidel izan dela. Bere ustez hau ez dela *puntu eta amaiera*, baizik *eta puntu eta hurrengo paragrafoa*.

Entienden, prosigue, que la negociación se ha llevado a cabo en el marco que se tenía que llevar y que la postura de su Grupo ha sido fiel al posicionamiento que se ha mantenido en los últimos años, y que considera que esto no es un punto y final, sino un punto y seguido.

Amaitzeko esan du onartu dezakeela besteek esatea alkate txarra dela edo bere taldeak kudeaketa txarra egiten duela; baina ez duela ondo ikusten lan gutxi egi-

Finaliza afirmando que puede aceptar que alguien critique su gestión, y que se diga que es un mal Alcalde, o que el equipo de gobierno lo hace mal; pero que

ten duela esatea, hori baino ez duelako egiten, lana. Beraz, alkatearen edo gobernu-taldearen dedikazioa zalantzan jartzea eta zortea bada lanean harrapa ditzala esatea ez da bidezkoa, dio alkateak, zortea badago lanean harrapuko dituelako.

en lo que no está de acuerdo es que se diga que si la suerte les pille trabajando, porque si algo se hace es trabajar, y que por tanto el dudar de la dedicación del Alcalde o del equipo de gobierno y decir que si hay suerte que les pille trabajando no procede, porque afirma que si hay suerte, les pillará trabajando.

Mendicute jaunak hartu du hitza berriz. Ez du zalantzan jarri alkateak lan egiten duela, baina ez dabiltzala batera lanean, ez direla onartutako plana aplikatzen eta gobernu-taldeak ez dituela ez planak ezta Plan estrategikoa jarraitzen.

Interviene de nuevo el señor Mendicute quien dice que no duda que trabaje el Alcalde, pero que lo que ha dicho es que no están trabajando conjuntamente, que no se están aplicando los planes que se han aprobado y que el Equipo de Gobierno no está trabajando en base a los planes ni al Pan Estratégico.

Hiriaren egoera deskribatu du hainbat daturekin eta egoera bideratzeko lan egiteari buruz mintzatu da, laburbildu du Mendicute jaunak.

Gaineratu du sozialisten bozeramaileak hiri honetako berpizte ekonomikoaren alde martxan diren ekimenen zerrenda egin duela: Enplegurako Bidea, ekintzaileentzako laguntzak, erronka teknologikoak, enpresen haztegia… baina EAJk egindako zuzenketak kenduz gero, zerrenda murritza geratuko litzateke: turismo-bulegoa, Ikasten Enpresa azoka,

Ha hecho, prosigue, una exposición con una serie de datos sobre la situación de la ciudad y se ha referido a que les pille trabajando para atajar esa situación.

Añade que el discurso que ha hecho el portavoz del Grupo Socialista poniendo en valor todas las iniciativas que se hacen en esta ciudad para la reactivación económica hablando de Enplegurako Bidea, de ayudas a emprendedores, de los retos tecnológicos y del vivero de empresas, si se quitan las enmiendas del PNV, quedaría la oficina de turismo, con

Abian azoka eta beste ezer gutxi; eta hori minbizia ibuprofenoarekin sendatu nahi izatea dela.
Zalantzan jarri du Alderdi Sozialistaren jokamoldea, halako ekimenek herria benetan biziberrituko duten esperoa ote duten. EAJkoek ezetz uste dutela.

la feria Ikasten Enpresa, la feria Abian y con poco más; lo cual es intentar curar un cáncer con ibuprofeno.
Se pregunta si de verdad el Partido Socialista piensa que con esas iniciativas se puede dar una vuelta a la ciudad para mejorar el empleo. Y afirma que ellos creen que no.

Mendicute jaunak dio alkateak % 0.25az mintzatu dela, nahikoa izan dela Eusko Jaurlaritzaren aurrekontua hitzartzeko, eta zer ote litzakeela hori Eibarren eginez gero, eta hala zela Alderdi Sozialista oposizioan zegoenean, Eusko Jaurlaritzarekin itunak egiteko. Baina hausnartuz gero zergatik % 0.25 nahikoa den, Alderdi Popularraren estrategiez gain, adostasuna duten proiektu asko dagoelako dela dio; inork ez baitu zalantza egiten osasunak edo hezkuntzak behar duten finantzazioaz, eta EAEko sistemak asko jotzen duela esparru sozialera, aurrekontuaren % 76 baita. Eta inbertsioei buruz hitz egitean ados daudelako euskal Y egin behar dela; alegia, proiektu handien inguruan ados daudela eta ñabardurak baino ez direla eztabaidatzen.

Plantea el Alcalde, prosigue, que el 0,25% ha sido suficiente para acordar el presupuesto del Gobierno Vasco, y que qué sería si lo traspolásemos a Eibar, y que también lo era cuando el Partido Socialista estaba en la oposición para pactar con el Gobierno Vasco; pero si nos preguntamos el porqué el 0,25% es suficiente, a parte de las estrategias que pueda tener el Partido Popular, es porque hay un nivel de consenso muy amplio en proyectos compartidos, ya que nadie duda de la financiación que requiere la sanidad, o la educación, y que el sistema de protección social que hay en Euskadi se lleva el 76% del presupuesto, y porque cuando se habla de inversiones se está de acuerdo en que hay que hacer la Y vasca; esto es, porque se está de acuerdo en los proyectos importantes y se discute de matices.

Mendicute jaunak dio Eibarren ez direla

Continúa diciendo que lo que ocurre en

jarri proiektu estrategikoei buruz hizketan, eta Plan Estrategikoa tiradera batean dagoela gordeta eta Udalbatzak ere ez duela onartu; eta bere taldeak uste duela guztion arteko diagnostikoa behar dela, hortik aterako direlako guztiek onartzeko moduko proiektuak.

Zuzenketetan 10 milioi euroko kontuak egon direla aipatu da, baina horiek talde guztienak bateratuta direla dio, eta talde batek zuzenketak egiten dituenean ez duela begiratzen besteak zer egin duen eta argi dagoela talka egingo dutela; gobernu-taldeak erabaki beharko duela guztiekin, batekin edo inorekin ere ez duen negoziatuko.

Aurrerago, Altxortegiko gerakinei dagokienez, esan du 2016ko aurrekontuaren likidazioak argi utzi duela betetzen ez diren proiektu asko dagoela, eta Altxortegiko gerakina behin eta berriz sortzen dela. Eta bere taldeak 5.177.000 €ko zuzenketak aurkeztu baditu, iazkoan ez bezala, arrazoia hau dela: iaz oposizioko taldeekin milioi eurotik gorako hitzarmenak lortu arren, aurten ere gerakina sortu dela eta, partidaz partida egindako azterketa baten ondoren, ikusi dutelako hiru milioi eurotik gorako kopurua ez dagoela ondo doituta.

Eibar es que no se han puesto a hablar de proyectos estratégicos de ciudad, y que hay un Plan Estratégico que está escondido en un cajón, y que ni siquiera se ha aprobado por este Pleno, y que lo que su Grupo plantea es que hace falta un diagnóstico compartido, y que en base al mismo saldrán proyectos compartidos. Se habla de diez millones de euros en enmiendas, prosigue, pero que es la suma de las enmiendas de todos los grupos, y cuando un grupo hace enmiendas no está pendiente de lo que enmiendan los demás, y lógicamente habrá un choque; pero que el Equipo de Gobierno tendrá que decidir si se negocia con todos, con uno, o con ningún grupo.

En cuanto a los remanentes de tesorería, dice más adelante, que la liquidación del presupuesto del año 2016 viene a confirmar que hay una muy baja ejecución de proyectos y una generación recurrente de tesorería; y si su Grupo presenta este año enmiendas por 5.177.000 euros, en vez de lo que hicieron el año pasado, es porque a pesar de llegar a un acuerdo el año pasado con los grupos de la oposición por más de un millón de euros, se ha seguido generando remanente y porque han realizado un análisis partida por partida y les resulta más de tres millones de

Mendicute jaunak dio inprobisazio handia ikusten dutela aurrekontuan, eta, Errebal salbu, ez dagoela epe luzeko proiekturik. Eta ez dagoela jakiterik zer bide hartuko duen Eibarrek, ezta zer asmo duen alkateak ere.

Dio zuhurtziaz jokatu behar dela, eta EAJren zuzenketa guztiak onartzea zuhurtzia falta ere izan litekeela. Baina negoziazioetan esan zutela EAJren zuzenketa bat onartuta partida bat motz utzi behar bazen urtean zehar eta ondorioz beste aldaketa bat onartu behar bazuten, zalantzarik gabe hala egingo zutela; baina haien ustez hori ez dela zuhurra izatea, jardunik gabeko mugimendu kalkulatua baizik, dirua gordetzeko.

Jarraitu du esanaz horrenbesteko izua eragin duten 5 milioiko zuzenketak aurkeztu aurretik gutun bat bidali ziola alkateari. Haren bidez azaldu ziola alkateari hiru milioiko desajusteak topatu zutela eta jakitun zela bere taldeko zuzenketak handiak zirela, baina akordioa lortzeko nahia zutela.

Dioenez, lehenengo pribatuan egin zuten eta ondoren publikoki; izan ere, negozia-

desajuste.

Añade que ven en el Presupuesto mucha improvisación, sin que haya proyectos a largo plazo más allá de Errebal, sin que se sepa qué se plantea para Eibar para los próximos años y sin que se sepa qué quiere el Acalde que sea Eibar en los próximos años.

Dice también que es verdad que hay que hacer un ejercicio de prudencia y que el aprobar todas las enmiendas de ajuste que plantea el PNV puede llegar incluso a ser imprudente, pero que ya plantearon en las negociaciones que si el aprobar una enmienda de ajuste planteada por el PNV suponía que durante el año una partida se quedaba corta y había que aprobar una modificación, sin duda, que iban a votar a favor; pero que consideran que no es un ejercicio de prudencia; sino un ejercicio de inactividad calculada para guardar dinero.

Prosigue en su intervención diciendo que antes de presentar las enmiendas por cinco millones que tanto asustan, ya le remitió una carta al Alcalde en la que explicaban que habían detectado más de tres millones de desajuste, y que pese a que sus enmiendas fueran abultadas la voluntad era llegar a un acuerdo.

Primero, prosigue, lo hicieron en privado, y luego públicamente porque el devenir

zioen bideak ikusarazi zien, jendaurrearekiko zabal arituz gero, akordioa lortzeko indarra egin zezaketela; beti egon direla akordioa lortzearen alde.

de las negociaciones les hizo ver que lo tenían que hacer público para forzar la posibilidad de un acuerdo, acuerdo al que han mostrado disposición en todas las reuniones.

Dio autokritika beharra egon daitekeela, baina ausart samarra iruditzen zaiola bertatik bertara bizi izan ez den prozesu bati buruzko autokritika eskatzea. Erantsi du negoziazioaren bilerei hedapen eta zabalkundea eman izana gustatuko litzaiokela, alkateak ikus zitzan.

Habrá que hacer autocrítica, continúa, pero hablar de autocrítica sobre un proceso de negociación en el que no se ha estado, le parece un poco atrevido, y dice que le hubiera gustado que se difundiesen las reuniones de la negociación para que el señor Alcalde las hubiese podido ver.

Era berean, bere taldea lasai dagoela, akordioa eskuratzeko egindako esfortzuagatik. Eta Zizeronek dioen bezala, kontzientziaren pisua mundu osoaren iritzia baino astunagoa da.

Dice más adelante que su Grupo tiene la conciencia tranquila por el esfuerzo hecho para llegar a un acuerdo, y que como diría Cicerón, la conciencia tiene más peso que la opinión de todo el mundo.

Harrigarria iruditzen zaio Mendicute jaunari epeetan egon den berandutzea justifikatzeko beste taldeak tartean sartzea: zuzenketa handiak eta zentzugabeak egiten dituztela, txosten teknikoak eskatzen dituztela. Izan ere, zuzenketak otsailaren 14ean aurkeztu ziren, txosten teknikoak astebete beranduagokoak dira –idazkariarena otsailaren 16koa eta kontuhartzailearen otsailaren 21ekoa- eta aurrekontua apirilean ari gara onartzen, baina aurrekontuaz hitz egiten hasteko proposamena eta egutegia irailekoak dira.

Sorprende, prosigue, que para justificar el retraso, se acude al resto de grupos: que hacen enmiendas abultadas y disparatadas, que precisan de informes técnicos; ya que las enmiendas se presentaron el 14 de febrero y los informes técnicos son, el de la Secretaria del 16 de febrero, y el del interventor del 21 de febrero; esto es, de una semana después, y que se está aprobando el presupuesto en abril, cuando ya en septiembre plantearon sentarse para hablar del presupuesto y presentaron un calendario.

Gogorarazi du alkateak esaten zuela garrantzitsuena zela adostutako aurrekontuak onartzea, epez kanpo izanda ere; baina aurten ez dela epea bete eta adostasun handirik ere ez dagoela. Gainera, 2002az geroztik, inoiz baino beranduago ari direla onartzen aurrekontuak.

Dio hobe izaten dela berandu inoiz ez baino, baina kasu honek beste esapide bati erantzuten diola hobe, XX. mendeko hogeiko hamarkadan Frantzian zegoen mugimendu surrealistan esaten zenarekin bat datorrela: beti da une ona ezer ez egiteko.

Añade que en noviembre el señor Alcalde decía que lo importante era aprobar unos presupuestos consensuados, aunque no fuera en plazo; pero que este año ni se cumple el plazo, ni reúnen muchos acuerdos, siendo el año que desde 2002 más tarde se aprueban.

Se dice que nunca es tarde si la dicha es buena, prosigue, pero parece que responde a la realidad el que nunca es tarde para no hacer nada, como decía el movimiento surrealista francés de los años veinte.

Jarraitu du eta esan du gizakia badela harri berarekin birritan topo egiten duten animali bakarra,; bada, sozilistak direla haiek beraiek bidean jarraitako harriarekin birritan topo egiten dutenak, zirriborroa irailean edo urrian aurkeztu zezaketelako.

Continúa diciendo que si el humano es el único animal que tropieza dos veces con la misma piedra, el partido socialista está siendo el único que tropieza dos veces con la misma piedra que él está poniendo en el camino, porque el borrador lo podía haber presentado en septiembre u octubre.

